

EBOLA KASU BATEN SUSMOA DAGOENEAN, ETORKINEN ABEGI- ETXE BATEN GARBIKETA EGITEKO JARRAIBIDEAK

Abegi-etxeko egoiliar/langile bat aztertzen ari dira Ebola kasu bat ote den susmopean.

Oso aukera gutxi daude ikertzen ari diren kasuak (susmagarriak) Ebola kasuak izateko. Ebola ez dela ziurtatuko duten analisien emaitzak, luzeenera jota, 72 ordu barru jakingo dira.

Ebolaren eraginpean dauden pertsonak sintomak (sukarra, buruko mina, beherakoa, goragalea) dituzten unetik aurrera soilik dira infekziosoak. Behin sintomak dituztenean, gorputzeko jariakin guztiak (odola, usuria, gorotzak, okadak, izerdia, listua eta hazia) dira infekziosoak eta objektuak kutsa ditzakete.

Pertsona susmagarria erreferentziako ospitalera eramana izan da; une horretatik aurrera ondorengo neurri hauek hartu beharko dira harik eta Ebolaren diagnostikoa baztertzen den arte:

- Ez dira ez ukitu eta ez garbitu behar gorputzeko jariakinekin kutsatuta dauden gainazalak, objektuak eta arropak.
- Ikertzen ari diren kasuan erabilitako arropa zuriak eta ohazalak ez dira garbitu behar. Dauden- daudenean utzi behar dira, ikertzen ari diren kasuko analisien emaitzak jakin arte.
- Ikertzen ari diren kasuak, sintomak izan ostean, ukitu dituelako potentzialki kutsatuak eduki ditzakeen eremuak saihestu egin behar dira, horien artean, konketak, komuneko urari jaregiteko kateak eta ukimen handiko beste gainazal batzuk, hala nola ateen eskutokiak eta telefonoak.
- Horrek kasu susmagarria egon den gela eta/edo bulegoa ixtea eskatuko du, baita gaixoak erabilitako komuna ere.

Garbiketa egiteko enpresa espezializatu bat bidaliko da eta abegi-etxea itxita egongo da garbiketa amaitu artean.

2014ko urriaren 31n onartua

Batzordearen Idazkaritza